

Euskararen historia soziala Bergaran

“Izotz ondoko eguzki”
(1940-1980)

BERGARA 2022. AROZTEGI ARETOA

Erakusketa • Exposición

Abenduaren 9tik 25era • Del 9 al 25 de diciembre

ERAKUSKETA **EXPOSICIÓN**

Euskararen historia soziala Bergaran "Izotz ondoko eguzki"
(1940-1980)

ANTOLATZAILEA **ORGANIZADOR**

Bergarako Udaleko Euskara Departamentua eta Udal Artxiboa

INPRIMAKETA-EDIZIOA **IMPRESIÓN-EDICIÓN**

K3 Inprimategia

ARGITARAPENA **EDICIÓN**

Bergarako Udala **Ayuntamiento de Bergara**

LEGE GORDAILUA **DEPÓSITO LEGAL**

LG D 00806-2022

SARRERA

Erakusketa honek 1940-1980 urte bitarteko Bergarako Euskararen historia soziala ezagutzera ematea du helburu.

Epemuga trantsizioan eta erakunde autonomikoen sorreran jarri da, eta ordura arte euskarak Bergaran, herri mugimenduaren lanari esker, izan duen bilakaera aztertzen da. Tartean, Gerra Zibilak eta Lehen Frankismoak euskararen erabilera sozialerako suposatutako duen galera aztertzen da.

Egitasmo zabalago baten hasiera izan nahi duen lehen atal honetan, 1940-1980 tartean euskara gorde eta zabaltzeko dutenen lana identifikatu, aitortu eta ezagutzera eman nahi da.

AHOZKO ITURRIAK

Protagonisten ahotsen bilketa zabal bat egin da, Gerraostetik 80ko hamarka-dara bitarte euskalgintzan jardundakoen testigantzen bidez euskararen historia soziala osatzeko helburuarekin. Elkarrizketa horiek egiteko Badihardugu elkarteak izan da bidelagun. 26 elkarrizketa egin dira.

ITURRI DOKUMENTALAK

Hainbat dokumentu idatzi eta argazki baliatu dira erakusketarako, tartean Bergarako Udal artxiboko funtsak: Udal fondoa, Bergarako Kultur Ekintzarena, argazki fondoak, etab.



NORTZUK ETA ZENBAT IZAN GARA?

Gerra aurretik


Abertzaletasunari eta erlijioari lotutako mugimendu eta giroa bizi zen Bergaran. 1931. urtean Bergarako Emakume Batza sortu zen, bere helburuen artean euskararen irakaskuntza sustatzea zuena. Beraien eskutik ireki zen Aritznoa ikastola (1933), Euzko Ikastola Batzak Gipuzkoan izan zuen bakarra. Batzokiaren babespean euskara ikasteko gau-eskolak izan ziren Bergaran eta baita antzerki eta dantza taldeak ere. Hain zuzen ere, Txomin Amasorrain eta Juste Amenabar batzokiko antzerki taldean ibilli ziren ikasle gisa.



Biztanleriaren eta euskaldun-kopuruaren bilakaera

1920tik 1980ra bitartean Bergarako biztanleria bikoiztu egin zen. 1920ko hamarkadako igoeraren eragile nagusiak Angiozar eta Ubera Bergaran sartzea eta industrializazioaren ondorioz izandako inmigrazioa izan ziren. Gerra garaian eta ondorengo urteetan hazkundera

gelditu egin da eta 50eko harmarkadatik aurrera berriro ere populazioak gora egin zuen, industrializazioa tarteko. Aldi honetan inmigrazio handia izan zen: 40ko hamarkadan %4 inguru ziren Euskal Herritik kanpo, Estatuko beste lurraldeetan jaioak eta 1970eko erdi aldean %23 inguru izatera iritsi ziren. Hala, euskararen ezagutza orokorrak 25 puntu inguruko galera izan zuen 1940-1980 tartean.



Iturria: Udaleko Euskara Zerbitzuaren proiektzioa

GERRA OSTEKO TESTUINGURU OROKORRA ETA EUSKARAREN EGOERA BERGARAN

1940-1980 urte tartea aldaketa sozio-politiko handien garaia izan zen. Gerraren ondotik euskararen ezagutzak eta erabilerak behera egin zuten. Kulturgintzak eta Euskalgintzak 70eko hamarkadan loratuko zen bide luze eta sakona egin zuten egoera hau iraultzeko.

Gerra ondoren (1940-1960)

Gerra ondoren urte ilunak etorri ziren. Bi hamarkada hauetan ekimen gutxi topatuko dugu. 40ko hamarkadan elizaren babespean Kaleko eta Labegaraietako dantza taldeak sortu ziren eta 50eko hamarkadan Gazte-Alai

dantza taldea, Joakin Etxaniz irakasle zela. Azken talde horretan emakumeak inkorporatzen joan ziren. 1942an Pol-Pol Mendi Taldea sortu zen.

60ko eta 70eko hamarkadak

Bi hamarkada hauetan sustapen lan handia egingo da herrigintzatik euskararen erabilera, transmisioa eta prestigioa berreskuratze aldera. Umeen eta helduen euskalduntzeak bultzada handia izango du eta kulturgintzaren arloan ekimen ugari bideratuko dira elkarte desberdinen eskutik.



NON ETA NOLA IKASI DUGU EUSKARA?

Etxean

Edozein hizkuntza ikasteko bide nagusia familia da. Hutsune batzuk izan baziren ere, Bergarako euskaldunek transmititu zieten euskara beren seme-alabei frankismoan zehar. Etxea izan zen euskararen gotorleku nagusia. Hala ere, euskaraz ez zekiten gurasoen proportzioa handitu ahala, euskararen etxeko transmisioa ere etengabe murrizten joan zen.

Etzetik kanpo, Eskolaz kanpo

Hezkuntza ez arautuan euskararen transmisioa eskola umei eskainitako eskola orduz kanpoko klaseen bitartez eta helduen alfabetatzearen bitartez lortzen da.

Euskalduntze eta alfabetatzea

Eskola umeen kasuan, euskaraz zekitenak alfabetatzeko Kili-Kili metodoa erabili zen eta euskaraz ez zekitenak euskalduntzeko, aldiz, eskola orduetatik kanpo eskolan bertan klaseak eskaini ziren.

Helduei begira, 1960. urtean hasi ziren gau eskolak Elementalean. Lehen urte haietan irakasle lanetan Josu Oregi eta Txomin Amasorrain ibili ziren. 1972an 85 ikasle zeuden. 1975-76 inguruan hasi ziren ikastolaren lokaletan aro berriko gau-eskolak. 1976an 270 ikaslek jardun zuten bertan.



UNED Bergara-Euskal Kultur Departamentua


1968. urtean Arantzazun Euskaltzaindiaren Biltzarra izan zen, Euskara batuari bide eman ziona.

1976. urtean Bergarako UNEDen Euskal Kultur Departamentua sortu zen. Bertan ibili ziren lanean, besteak beste, Juan Martin Elexpuru eta Jerardo Elortza.

Euskaltzaindiak Bergarako UNEDi eman zion euskara klaseak eta tituluak eskaintzeko ardura.

1977/1978 kurtsoan hasi ziren euskara tituluak ateratzeko ikastaroak ematen. 1978/79 ikasturtean eskolak antolatu ziren UNEDen, Eskoriatzako Irakasle Eskolarekin elkarlanean, eta euskara tituluarekin batera irakasle titulu ere ateratzen zuten. Larunbat goizetan, 80ko hamarkada hasieran 900 ikasleren bueltan juntatzen ziren Bergaran.

Euskaraz jardungo zuten profesionalen gabezia oso handia zen 60ko eta 70eko hamarkadan. Hezkuntza eremuan bezala beste esparru guztietan. Kazetaritza eremuko gabeziak euskaraz entzun eta irakur zitekeena oso murrizta izatea zekarren, besteak beste.





Eskolan

Hezkuntza arautuko euskarazko irakaskuntzaren bilaera ezagutzeko lehenengo datuak 1964koak dira

15 urte geroago, Haur Hezkuntzako umeen %73 euskaraz ari ziren. Euretariako asko, familia erdaldunetan jaiok. Era horretan, eskola bilakatu zen euskararen biziberritzearen zutabe nagusia.

Euskara Hezkuntzan

1933an ireki zen Aritznoa ikastolaren ondotik salto handi bat egin eta 60ko hamarkadara etorri behar da. Euskarazko bi haur eskola proiektu sortu ziren:

- 1960/1961 kurtsoan gerra ondoko lehenengoa, Santa Infancia Haur eskola Batzoki Zaharrean. Dominika Madinabeitia izango da irakaslea. Lehenengo mailati aurrera "Academia" zegoen, Don Jose Amilibiaren zuzendaritzapean.



- 1968/1969 kurtsoan, Serafin Esnaolaren babespean, Komenio kalean, Koldo Eleizalde haur eskola irekiko da.

Bi haur eskola horiek San Jose Obreroko Dominikoeekin batera 1971. urtean Aranzadi Ikastola sortuko dute Seminarioan. Kontxita Maiztegiren eskola ere gehituko zaie.

Euskarazko irakaskuntza ikastolan progresiboa izango da eta 1980. urtean eskainiko dira klase guztiak euskaraz lehenengoz.

1971. Osintxun auzo eskola bat sortu zen, auzoko haur txikiak. Jaione Isazelaia andereño.

Gainontzeko ikastetxeen kasuan, 1971an egindako inkesta baten arabera, eskola nazionalako hamar ikasletik seik ez zekiten euskaraz: 930 umetatik 540k ez zekien. Eta eskola hauetan lehenengo klaseak euskaraz 1975-1976an hasi ziren eskaintzen. Mariaren Lagundian ere 1975ean hasi ziren gela batzuk euskaraz irakasten.

EUSKALGINTZA ETA KULTURGINTZA (1940-1960)

Euskara kalean gutxi bistaraziko da bi hamarkada hauetan. Euskalgintzari eta kulturgintzari lotutako adierazpen gutxi batzuk topatuko ditugu.


Pol-Pol mendi taldea 1942. urtean sortu zen, giro euskalduna zegoen bertan, eta euskaltzaletasuna aldarrikatzeko eremu bat zen.

Bergarako etxe askotan zegoen ahoz aho jasotako bertsoak kantatzeko ohitura. Baserri-auzoetan bertso-saioak izaten ziren jaien bueltan.

Dantza saioek jarraipena izan zuten gerraostean ere: euskal dantza folkloretzat hartzen zuten agintariek, eta ez zitzairen beste kultur-adierazpen batzuk bezain arriskutsua iruditzen.

1940ko hamarkadan "Accion Catolica" taldeak bi dantza talde jarri zituen abian: Kalekoa eta Labegaraietakoa.

1955. urtean Udalak Gazte-Alai dantza taldea sortu zuen.



Iturria: Anaje Narbaizak egindako proiektzioa.

EUSKALGINTZA ETA KULTURGINTZA (1960-1980)

60ko hamarkadan, folklore gisa ulertzen ziren adierazpen kulturaletatik haratago argi izpi garrantzitsuak hasi ziren agertzen Bergaran. Orduan sortuko dira, kulturgintzan zeuden hutsuneak betetzeko asmoz, Juventudes Parroquiales (Juven) (1966) eta Promoción Cultural Vergaresa (1967). 60ko hamarkadan sortu ziren eragileek segida izango dute 70eko hamarkadan, indartu egingo dira eta berri batzuk ere etorriko dira. Besteak beste, Irigoien Patronatua (1971-1974), Alkartu Nai elkarteak (1973-1982) eta Bergarako Urrats Berriak.

Kultur jarduerari erreparatzen badiogu, bi hamarkada hauetan ekimenek gora egingo dute. Susperraldi eder bat izango da.

Antzerkigintzan, Ernai Antzerki taldearen lehen emanaldia izan zen Novedades aretoan (1965). Txomin Amasorrain eta Juste Amenabar izan ziren zuzendariak eta 1972 urtera arte jardun zuten.

Kantangintzan, Ariznoa dantzalekua irekiko da (1964) eta bertako orkestran kantatuko du euskaraz Jose Antonio Villarrek. Ondoren etorriko dira, Urretxindorrek (1966) eta Ameslariak (1967) taldeak. Iñaki Arriaranek Ameslariak taldea utzi eta bakarlari gisa, Arriaran y los Mansos taldean eta Akelarre taldean jardun zuen 1975. urtera arte.

70eko hamarkadan izan ziren, halaber, Euskal liburu eta disko azoka (1972) Juvenek antolatuta, Euskal kultura saioak (1972-1973) Irigoien Patronatuaren eskutik, Euskal Kultur hamabostaldia (1974) Bergarako Urrats Berriaren eskutik, Musika jaialdi jendetsuak, Unedek antolatutako Euskal Herriko historia jardunaldiak, Arizondo aldizkaria (1976) Bergarako Kultur Ekintzaren eskutik, etab.



Bertsolaritzan 1964an Gipuzkoako bertsolari txapelketan hartu zuen parte Jesus Alberdi "Egileor"-ek eta 1967. urtean finalista izan zen Euskal Herriko bertso txapelketan Jose Luis Gorrotxategi. 1975ean Basarri eta Uztapideren omenez bertso saioa izan zen frontoian. Urte berean, Osintxuko jaietan izan ziren Azpillaga, Gorrotxategi, Lizaso, Lopategi, Egileor eta Lazkao Txiki.

Umeentzako euskarazko aisialdian Euskal Udalekuak eta Pol-Poleko gaztetxoaren mendizale taldearen lana aipatu behar dira. Pol-Pol gaztetxo mendi taldeak (1969) umeen euskarazko aisialdian lan handia egin zuten.

Dantzaren atalean, Maite Barrena eta Jabier Mendizabal "Surra" irakasle lanetan aritu ziren 60ko hamarkadan. Bost lokal ezberdinetan klaseak ematera iritsi ziren. Aranzadi Ikastolan dantza taldea sortu zuten 1976. urtean Moises Azpiazu zelaririk irakasle. Ordura arteko beste dantza taldeetako ikasleak ikastolako taldera batu ziren eta Haur Dantzarien Eguna antolatzen hasi ziren, 1974tik aurrera.

ONDORIOAK

Euskararen ezagutzak eta kale erabilerak beherakada eta galera izugarria izan zuten gerraosteko urteetan. Errealitate horri aurre egin eta iraultzeko asmoz herri mugimendu indartsu eta bizia sortu zen, nagusiki 60ko eta 70eko hamarkadetan:

- Ezagutza bermatu eta areagotzeko bi ildo jorratu ziren:
 - Euskarazko irakaskuntza ezarri zen eskoletan, haur eskolatik hasi eta, urtez urte, OHO guztira zabaldu arte. Aranzadi ikastolak ireki zuen bidea eta gero beste eskola guztietara hedatu zen.
 - Heldu nahiz umeak euskalduntzeko eta alfabetatzeko eskolak bideratu ziren: Kili-Kili, gau eskolak, euskara tituluak.

- Euskara etxetik kalera ateratzea lortu zen. Euskalgintza eta kulturagintza indartsu bat eratu zen, era guztietako jarduerak antolatu eta kale bizitza euskaraz izan zedin lan egin zuena.

Garai hartako ekimen horiek guztiak aztertzerakoan, badira hainbat datu eta errealitate kontuan hartu beharrekoak: inmigrazioaren eta populazioaren hazkunde handia, herritarren jarrera hizkuntzarekiko, familia ez euskaldunetan seme alabak euskalduntzeko apostua, etab. Horren ondorioz, 1980 inguruan euskara prestigioa hartzen hasi zen: kalean ikusgarritasuna eta erabilera irabazi zituen eta ezagutzak ere goranzko norabidearekin abiatu zuen 80ko hamarkada.



Iturriak: Eustat 1986ko errolda eta Kaleko erabileraren neurketa 1983.

ESKERTZA

*sukaldean zein herriko plazan, euskara biziberritzeko alea
jarri dutenei. Euskara ikasi eta irakatsi dutenei, euskaraz gozatu
eta gozarazi digutenei, euskaraz egiteagatik sufritu dutenei,
euskaraz bizitzeko hautua egin dutenei...*

Lehengoei eta oraingoei

Zuri

ITURRIAK

Erakusketa hau osatzeko baliatu diren iturriak:

1. Protagonistei egindako elkarrizketak (ahotsak.eus)

Hauxe izan da egitasmoan erabili den iturri nagusia. Izan ere, herritar asko ibili da euskarari eusten eta eragiten Bergaran, hainbat alorretan: hezkuntzan, antzerkian, bertsolaritzan, hizkuntzalaritzan, kantagintzan... Bai gerra aurrean eta baita gerra ostean ere.

Oraingo honetan, Gerraosteko mugimenduak eta lanak, 1950-1980 bitartekoak, jaso nahi izan dira eta, horretarako, Badihardugu elkartearekin lankidetzan, aipatutako alorretako 26 lagun elkarrizketatu eta euren testigantzak jaso eta landu dira. Testigantzok ikusgai daude ahotsak.eus webgunean helbide honetan:

<https://ahotsak.eus/proiektuak/euskararen-historia-soziala-bergaran/>

2. Artxiboak

- Bergarako Udal artxiboa, azpifondo administratiboa
- Bergarako Udal artxiboa, Bergarako Kultur Ekintzako fondoa
- Bergarako Udal artxiboa, argazkiak
- Gipuzkoako Probintziako artxibo historikoa, Gobernu Zibila
- Lazkaoko Beneditarren artxiboa
- Oregi-Goñi bilduma

3. Bibliografia

- Estudio socio-lingüístico del euskara (Siadeco), 1977.

Euskararen historia soziala Bergaran

“Izotz ondoko eguzki” (1940-1980)

Ordutegia:

asteartetik ostiralera	18:00 - 20:30
larunbatetan	12:00 - 14:00
	18:00 - 20:30
igande eta jaiegunetan	12:00 - 14:00



AROTEGI
ARETOA



Bergarako
Udala

